

145. ALDIZKARIA - 2013ko uztailaren 30a

Ordenantza, Odietako Udalaren jabetzako lokalak erabiltzea arautzen duena. Behin betiko onespena

Odietako Udalak, 2009ko ekainaren 29an egin bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zuen Odietako Udalaren jabetzako lokalak erabiltzea arautzen duen ordenantza.

Hasiera batean onesteko erabakia 2009ko 101. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 17an, eta jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Erripan, 2013ko ekainaren 12an.–Alkatea, Alberto Urdaniz Elizondo.

ODIETAKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK ERABILTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Odietako Udalak lokal edo biltoki gutxi ditu; izan ere, bakarrik honako higiezin hauen jabea da:

–Udalaren Herriko Etxea, Erripan baitago.

–Ziaurritzko lokala (Santa Catalina kalea, 10-behea).

Hortaz eta kontuan hartuta Udalbatzak, gobernu taldeak, batzordeek, talde politikoek, ibarreko kontzejuen batzarrek, bertako elkarte eta taldeek, auzo taldeek eta abarrek espazio horiek erabiltzeko beharra dutela, lokal horien erabilera arautu beharra dago, eta horretarako baldintza eta lehentasunak ezarri.

2568/1986 Errege Dekretuaren 27 eta 28. artikuluen edukiaren arabera, Udaleko talde politikoek eskubidea dute Udalbatzaren lokalak erabiltzeko, haietan bilkurak edo laneko saioak egiteko elkarteekin herritarren interes kolektibo, orokor zein sektorekoen onerako; betiere, "toki entitatearen administrazio antolaketaren aukera funtzionalen heinean".

Halaber, herritarrek jarduera publikoan parte hartzeko eskubidea dute, baita administrazioek, ahal duten neurrian, behar diren laguntzak bultzatzea eta eman ditzaten ere, herriko jardueretan parte har dezaten.

Aurrekoa ikusita, honako arau hauek ezarri dira,

ERABILTZEKO ETA FUNTZIONATZEKO ARAUAK

1. Udalbatzak, gobernu taldeek eta udal batzordeek espazio eta lokalak erabiltzea.

–Aipatu helburuarekin Udalaren espazioak erabiltzeko, nahikoa izanen da Alkatetzak edo batzordeko buruak baimena ematea.

–Lehentasuna emanen zaio espazioak helburu horrekin baliatzeari beste edozein erabiltzailearen aurretik.

2. Ibarreko Kontzeju batzarrek eta talde politikoek lokalak erabiltzea.

–Udalaren espazioak aipatu helburuarekin erabili eta baliatzeko, jarduketa hauek egin beharko dira:

- Zein egun eta ordutan erabili gogo den, lanegun bat lehenago gutxienez eskabidea aurkeztu beharko da Udalaren bulegoetan, entitate eskatzailearen izena, bere ordezkaria, telefonoa, bileraren helburua eta zein ordutan baliatu nahi den adierazita.
- Eskaera jaso ondoko lanegun bateko epean gehienez ere, Udaleko Alkatetzak edo hark eskuordetzen duenak erabakia hartuko du eta bitartekoak prestatuko ditu espazioa edo lokala ekitaldirako ireki eta ondoren ixteko.

–Lehentasuna emanen zaio espazioak helburu horrekin baliatzeari beste edozein erabiltzaile eta helbururen aurretik, 1. arauan aipatutakoak izan ezik.

3. Ibarreko elkarte eta taldeek, auzo taldeek eta abarrek lokalak erabiltzea.

–Helburu horretarako lokal hauek erabil daitezke:

- Udaletxeko osoko bilkuren aretoa, Erripan dagoena.
- Arlo kultural eta sozialeko (ez gastronomikoko) erabileren aretoa, Ziaurritzen baitago (Santa Catalina, 10-behea).

–Espazio bat ez zaio era esklusiboan eta iraunkorrean entitate bati esleitu, baina aldiari behingo erabilera esleitu ahalko da.

–Eskatzailea arduratuko da aretoaren erabilera egokiaz, erantsitako instalazioak barne direla, hala nola komunak eta altzariak, eta denak garbi utzi beharko dira, aurkitu bezala. Kalteak gertatzen badira edo erabilitakoa zikin uzten bada, erabiltzaileen gain izanen dira kalte horiek eta garbiketako gastuak.

–Lokalaren erabilera bere izenean eskatu ahalko du eskatzaileak edo, bestela, ibarrean diharduen talde baten izenean, eta denbora guztian eskatzaile den pertsona hori izanen da ordenaren eta lokalaren erabilera egokiaren arduraduna.

–Indarra duen araudia aplikatuta, debeku da lokal hauetan erretzea.

–Halako une batzuetan eta denbora batean, eta organo eskudunak baimena ematen duen guztietan, erabiltzaileek Ziaurritzko lokala erabiltzen ahalko dute trasteak, tresneria, eszenako materiala etab. altxatzeko, baldin eta horiek kaltegabeak eta “arriskurik gabekoak” badira aplikatzeko den legediaren arabera.

–Udaleko Alkatetzak ukatzen ahalko du eskatutako lokala erabiltzea, ordenantza honetan adierazitako arauetako bat ez bada betetzen.

–Debekatua dago lokalean animaliak sartzea, itsuen zakur gidariak izan ezik.

–Erabiltzaileek bizikidetzaren eta elkarrekiko begirunearen arauak bete beharko dituzte beti.

–Udalaren espazioak goian aipatu helburuarekin erabili eta baliatzeko, jarduketa hauek egin beharko dira:

- Zer egunetan erabili gogo den, bi lanegun lehenago gutxienez eskabidea aurkeztu beharko da Udalaren bulegoetan, entitate eskatzailearen izena, bere ordezkaria, telefonoa, bileraren helburua eta zein ordutan baliatu nahi den adierazita.
- Eskaera ondoko lanegun bateko epean, Udaleko Alkatetzak edo hark eskuordetzen duenak erabakia hartuko du eta bitartekoak prestatuko ditu espazioa edo lokala ekitaldirako ireki eta ondoren ixteko.
- Eskaera formalizatzen denean, ordenantza honen kopia bat emanen zaie kopia eskatzen duten partikular eta/edo entitate eskatzaileei.

–Erabilera tasak: Eskatutako lokalak erabiltzeko tasak ordaintzea ezinbestekoa dela erabakitzen ahalko du Udalak, honako kasu hauetan:

- Erabilitako lokalen berokuntza piztea eta martxan izatea beharrezko denean denbora tarte jarraitu batean. Kasu horietan, Odietako Udaleko Alkatetzak finkatuko du tasen zenbatekoa, egindako gastuak konpentsatzeko helburuarekin eta muga horrekin.
- Lokalak erabili nahi direnean klaseak emateko edo kurtsoak egiteko, mintzaldietarako..., sarrera kobratzen bada edo etortzen diren pertsonen kontraprestazio edo ordainketa eskatzen bazaie. Kasu horietan, Odietako Udaleko Alkatetzak finkatuko du tasen zenbatekoa, betiere berdintasun eta objektibotasun irizpideei jarraikiz.

Erripan, 2013ko ekainaren 12an.–Alkatea, Alberto Urdaniz Elizondo.